IRAGARKIA, Bilboko Larreagaburuko 1 poligonoko C alorra hiritzeko kontratua esleitu dela jakinarazteko (5/01 espedientea). 811

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del contrato que tiene por objeto la «Urbanización del polígono 1 de la Mina del Morro, sector C, de Bilbao». (Expte. 5/01). 811

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

LEHIAKETA PUBLIKOA, bulego judizial eta fiskaletako barne antolamenturako sistema eta egitura berrien hasierako plangintza (lehenengo fasea) eta azterlana egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko. 812

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

CONCURSO PÚBLICO para la contratación de la asistencia técnica referida al estudio y planificación inicial (primera fase), de una nueva estructura y sistemas de organización interna de oficinas judiciales y fiscales. 812

**OSASUN SAILA**

ESLEIPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarena, Legazpiko Osasun Zentroa eraberritzeko lanak kontratatzeko espedienteari dagokiona. 814

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ADJUDICACIÓN de Osakidetza-Servicio vasco de salud, del expediente relativo a obra de reforma del Centro de Salud de Legazpia. 814

**LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA**

IRAGARKIA, Ataungo (Gipuzkoa) San Martin auzoaren Agauntza errekaren uholdeetatik babesteko eta erreka bideratzeko lanen kontratua esleitu dela jakinarazteko (27/01 Urak). 815

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE**

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del contrato que tiene por objeto la realización de las «Obras de defensa contra inundaciones y encauzamiento del río Agauntza a su paso por el barrio de San Martín en Ataun (Gipuzkoa)». 27/01 Aguas). 815

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-285

339/2001 DEKRETUA, azaroaren 11koa, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio-egoerei buruzko araudia onartzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/2989 Legeak, berori aldatzen duen azaroaren 7ko 16/1997 Legeak ematen dion idazkera berrian, V. Kapitulua eskaintzen dio administrazio-egoerak arautzeari. Legezko araudiak, nahikoa izanik ere, ez ditu ukitzen zenbait alderdi eta, beraz, kasuan kasuko administrazioaren iritzira interpretatu dira eta, ondorioz, batzuetan interpretazio desberdinak egin dira kasu berberaren aurrean.

Ildo horretatik, euskal herri administrazioetako funtzionarioetatik araudi honen eraginpean daudenek izan ditzaketen administrazio-egoerei aplikatu behar zaizkien irizpideak batu eta finkatu nahi dira. Gainera, EAEko legeriak langile horiei aitortzen dizkien be-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-285

DECRETO 339/2001, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Situaciones Administrativas del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.

La Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Publica Vasca, en su nueva redacción efectuada por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre, de modificación de la misma, dedica su Capitulo V a regular las situaciones administrativas. La regulación legal, si bien es suficiente, no alcanza determinados aspectos que han estado sujetos a la interpretación de cada Administración, lo que ha motivado que en determinadas ocasiones se hayan desarrollado sobre el mismo supuesto interpretaciones diversas.

En este sentido, el presente Reglamento pretende unificar y fijar los criterios aplicables a las diferentes situaciones administrativas en las que se puede encontrar el personal funcionario de las Administraciones públicas vascas incluido en su ámbito de aplicación. Asi-

rezitasunak ere jaso nahi dira, horien interpretazioa eta eragina argitzearren.

Araudiak zehatz-mehatz erregulatzen ditu aplikazio-eremua eta egoerak (jarduneko zerbitzua, borondatezko eszedentzia, borondatezko eszedentzia pizgarriduna, seme-alabak zaintzeko eszedentzia, destinoaren zain, zerbitzu bereziak, nahitaezko eszedentzia, eginkizungabetua eta beste herri-administrazio batzuetan zerbitzuan). Horretaz gain, argitu egiten ditu administrazio-egoera bakoitzaren gorabeherak eta mugatu egiten ditu jarduneko zerbitzura itzultzearen ondorioak. Lanpostua zein kasutan gordeko den eta egoera bakoitzak administrazio-karreran eta dirutan duen eragina ere zehazten ditu.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoak dioenari jarraituz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko abenduaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio-egoerei buruzko araudia onartzea. Dekretu honen eranskinean dago jasota.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Arau bidezko garapena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean funtzio publikoko eskumena duen sailaren titularrari eskumena ematen zaio araudi hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren arauak emateko.

*Bigarrena.–* Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

mismo, se pretende recoger las particularidades que, aplicables al citado personal, están contenidas en la legislación vasca, intentando clarificar la interpretación y los efectos de las mismas.

En concreto el Reglamento, regula con detalle el ámbito de aplicación del mismo, las situaciones de: servicio activo, excedencia voluntaria, excedencia voluntaria incentivada, excedencia para el cuidado de hijos, expectativa de destino, servicios especiales, excedencia forzosa, suspensión de funciones y servicio en otras administraciones públicas, clarifica las circunstancias de cada situación administrativa concreta, delimita los efectos del reingreso al servicio activo, los supuestos de reserva de puesto de trabajo y los efectos tanto económicos como para la carrera administrativa derivados de cada situación.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 11 de diciembre de 2001,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Aprobar el Reglamento de Situaciones Administrativas del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, que se acompaña como Anexo al presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo Normativo.

Se autoriza al titular del departamento competente en materia de función pública de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para que dicte las normas complementarias que sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Reglamento.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

ERANSKINA

## EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOETAKO FUNTZIONARIOEN ADMINISTRAZIO EGOEREI BURUZKO ARAUDIA

### I. KAPITULUA
### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Aplikazio-eremua.

1.– Erakunde hauen zerbitzura diharduten funtzionarioei aplikatuko zaie araudia:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra.

b) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

c) Lan Harremanen Kontseilua.

d) Foru eta Toki Administrazioa eta horren erakunde autonomiadunak.

e) Euskal Herriko Unibertsitatea, betiere, Unibertsitatearen Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera eta Unibertsitatearen autonomia errespetatuta.

f) Batzar Nagusiak.

2.– Halaber aplikatuko zaie Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean aipatzen diren estatutupeko langileei, baldin eta zerbitzuak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan ematen badituzte, betiere, bertan ezartzen diren salbuespenak errespetatuta.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizien kidegoetako funtzionarioei, berriz, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea garatzeko emandako araudi honen xedapenetatik, bakarrik aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean jasotzen diren egoerei buruzkoak.

4.– Otsailaren 19ko 2/1993 Legean araututako kidegoetako funtzionarioei ere aplikatuko zaie, salbu eta IV. eta VI. kapituluetan eta 17. artikuluko 1.e) idatzzatian xedatutakoa. Kidego horiek Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleek osatzen dituzte.

5.– Aplikazio-eremuan sartzen ez diren euskal herri-administrazioen zerbitzura diharduten funtzionario eta estatutupekoentzat, araudi hau osagarria izango da

*2. artikulua.–* Administrazio egoerak.

Funtzionarioak administrazio-egoera hauetan egon daitezke:

a) Jarduneko zerbitzuan.

b) Borondatezko eszedentzian.

c) Borondatezko eszedentzia pizgarridunean.

ANEXO

## REGLAMENTO DE SITUACIONES ADMINISTRATIVAS DEL PERSONAL FUNCIONARIO DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS

### CAPÍTULO I
### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Ámbito de aplicación.

1.– El presente Reglamento es de aplicación al personal funcionario al servicio de:

a) La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos,

b) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas,

c) El Consejo de Relaciones Laborales,

d) La Administración foral y local y sus Organismos Autónomos,

e) La Universidad del País Vasco, conforme a las previsiones contenidas en la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, y ello sin perjuicio del respeto a la autonomía universitaria, y

f) Las Juntas Generales.

2.– Será de aplicación al personal sujeto al régimen estatutario que establece la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi que preste sus servicios en el ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud, sin perjuicio de las excepciones que en la misma se establecen.

3.– Al personal funcionario de los cuerpos de la Policía del País Vasco le serán de aplicación las disposiciones del presente Reglamento dictado en desarrollo de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, referidas a las situaciones previstas en la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco con las peculiaridades que en la misma se contienen.

4.– Será de aplicación al personal funcionario de los cuerpos docentes de la enseñanza no universitaria del País Vasco, regulados por Ley 2/1993, de 19 de febrero, salvo lo dispuesto en los Capítulos IV, VI y el apartado 1.e) del artículo 17.

5.– Este Reglamento tiene carácter supletorio para el personal funcionario y estatutario al servicio de las Administraciones Públicas Vascas no incluido en el ámbito de aplicación del mismo.

*Artículo 2.–* Situaciones administrativas.

El personal funcionario puede hallarse en alguna de las siguientes situaciones administrativas:

a) Servicio activo.

b) Excedencia voluntaria.

c) Excedencia voluntaria incentivada.

d) Seme-alabak zaintzeko eszedentzian.

e) Destinoaren zain.

f) Zerbitzu berezietan.

g) Nahitaezko eszedentzian.

h) Eginkizun gabetuta.

i) Beste administrazio batzuen zerbitzuan.

II. KAPITULUA
JARDUNEKO ZERBITZUA

*3. artikulua.–* Jarduneko zerbitzua.

1.– Honelakoetan, funtzionarioa jarduneko zerbitzuan egongo da:

a) Aurrekontuz hornitutako plantillako plaza batean behin-behingoz edo behin betikoz funtzionario gisa badihardu; funtzionarioentzat gordetako lanpostu batean badago, edo zerbitzu eginkizunetan badago, destinoa edozein administrazio edo erakunde publikotan duela ere.

b) Lanpostuak betetzeko prozedura baten bitartez beste lanpostu bat lortu badu, horretaz jabetzeko epean, hau da, lehengo lanpostua utzi eta berriaz jabetzen den bitartean.

c) Langileak birkokatzeko prozeduraren lehenengo bi faseetako batean dagoenean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54 bis artikuluan xedatutakoari jarraituz.

d) Arlo publikoan funtzionario gisa diharduenean, lege-xedapen baten bitartez horrela ezarrita badago.

e) Lizentzia edo baimenen bat gozatzen ari denean edo oporretan dagoenean.

2.– Jarduneko zerbitzuan dauden funtzionarioei funtzio publikoari buruzko arauak eta kasuan kasuko administrazio edo erakunde publikoko lan-baldintzak aplikatuko zaizkie.

III. KAPITULUA
BORONDATEZKO ESZEDENTZIA

*4. artikulua.–* Borondatezko eszedentziak.

1.– Borondatezko eszedentzia kasu hauetan hartu ahal izango da:

a) Norberaren kontuetarako.

b) Arlo publikoan zerbitzuak emateko.

c) Familia bateratu ahal izateko.

*5. artikulua.–* Xedapen orokorrak.

1.– Borondatezko eszedentzia ofizioz eman ahal izango da araudi honetan zehaztutako kasuetan edo, bestela, funtzionario interesdunak eskatuta, eta eszedentzia onartzen duen ebazpenean adierazten den egunetik aurrera izango du eragina.

d) Excedencia para el cuidado de los hijos/as.

e) Expectativa de destino.

f) Servicios especiales.

g) Excedencia forzosa.

h) Suspensión.

i) Servicio en otras Administraciones Públicas.

CAPÍTULO II
SERVICIO ACTIVO

*Artículo 3.–* Servicio activo.

1.– El personal funcionario se halla en situación de servicio activo:

a) Cuando preste servicios como personal funcionario ocupando, provisional o definitivamente, una plaza de plantilla dotada presupuestariamente, desempeñe un puesto de trabajo reservado a personal funcionario o le haya sido conferida una comisión de servicios cualquiera que sea la Administración o Entidad pública en que se encuentre destinado.

b) Cuando cese en un puesto de trabajo por haber obtenido otro, mediante procedimientos de provisión de puestos de trabajo, durante el plazo posesorio, que será el que transcurra entre el cese en el anterior puesto y la toma de posesión en el nuevo.

c) Cuando se encuentre en las dos primeras fases de reasignación de efectivos, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 54 bis de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

d) Cuando preste servicios como personal funcionario en el sector público y así se establezca por disposición legal.

e) Cuando se encuentre disfrutando de licencias, permisos o vacaciones.

2.– El personal funcionario en situación de servicio activo se regirá por la normativa de Función Pública y las condiciones de trabajo de la Administración o Entidad pública en donde preste servicios.

CAPÍTULO III
EXCEDENCIA VOLUNTARIA

*Artículo 4.–* Tipos de excedencia voluntaria

1.– La excedencia voluntaria podrá concederse en los siguientes casos:

a) Por interés particular.

b) Por prestar servicios en el sector público.

c) Por agrupación familiar.

*Artículo 5.–* Disposiciones comunes

1.– La excedencia voluntaria podrá concederse de oficio en los supuestos previstos en este Reglamento o previa solicitud del personal funcionario interesado y será efectiva a partir de la fecha que se determine en la resolución de concesión de la misma.

2.– Borondatezko eszedentzian dagoen funtzionarioari ez zaio lanpostua gordeko eta egoera horretan emandako denbora ez zaio kontuan hartuko administrazio-karrerarako, hirurtekoetarako eta eskubide pasiboetarako.

3.– Borondatezko eszedentzian dagoen funtzionarioak ez du inolako ordainsaririk jasoko egoera horretan dagoen bitartean.

4.– Nahitaezko erretirorako adina gaindituta bere borondatez jarduneko zerbitzuan jarraitzen duen funtzionarioari ez zaio borondatezko eszedentziarik emango.

*6. artikulua.–* Norberaren kontuetarako borondatezko eszedentzia.

1.– Interesatuak eskatuta emango da, baldin eta sasoi horretan zerbitzuko beharren arabera ahal bada.

2.– Norberaren kontuetarako eszedentzia hartzeko, nahitaezkoa izango da eskaria egin aurreko bost urteetan arlo publikoan benetako zerbitzuak etengabe eman izana. Eszedentzian gutxienez bi urte egon beharko da segidan.

Norberaren kontuetarako borondatezko eszedentzian dagoen bitartean funtzionarioak hirurogeita bost urte betetzen baditu eta jarduneko zerbitzura itzultzeko eskaria egin ez badu, nahitaezko erretiroa ofizioz aitortuko zaio.

3.– Aipatutako epeak kontatzerakoan, zerbitzu berezietan, destinoaren zain, familiakoak zaintzeko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian emandako denbora benetan emandako zerbitzutzat joko da.

4.– 5.4 artikuluan zehaztutako kasuetan ez ezik, funtzionarioa diziplina espediente baten menpe edo zehapen bat betetzeke dagoenean ere, ukatu egingo zaio norbere kontuetarako borondatezko eszedentzia.

*7. artikulua.–* Arlo publikoan zerbitzuak betetzeko borondatezko eszedentzia.

1.– Edozein administrazio publikotan lan kontratudun gisa edo beste kidego edo eskala bateko funtzionario gisa jarduneko zerbitzuan dagoenari borondatezko eszedentzia emango zaio, salbu eta bateragarritasuna aitortu bazaio edo arlo publikoko erakundeetan zerbitzuak ematen hasi eta beste egoera batean egotea ez badagokio.

Aurreko lerrokadaren ondorioetarako, sozietate publiko hauek izango dira arlo publikokoak: administrazio publikoek kontrolatzen dituztenak, merkataritzako legerian jasotako bideetatik edozeinen bitartez, baldin eta administrazio horiek legez ezarritako portzentajeko partaidetza edo handiagoa baldin badute sozietateotan, dela zuzenean, dela zeharka.

2.– La excedencia voluntaria no dará lugar a la reserva del puesto de trabajo, y el tiempo de permanencia en la misma no se computará a efectos de carrera administrativa, trienios y derechos pasivos.

3.– El personal funcionario en situación de excedencia voluntaria no devengará ningún tipo de retribución mientras permanezca en la misma.

4.– No podrá concederse la excedencia voluntaria cuando el personal funcionario prolongue voluntariamente su permanencia en el servicio activo una vez rebasada la edad de la jubilación forzosa.

*Artículo 6.–* Excedencia voluntaria por interés particular

1.– Se declarará a instancia de parte, estando su concesión subordinada a las necesidades temporales del servicio.

2.– Para solicitar el pase a la situación de excedencia por interés particular será preciso haber prestado servicios efectivos en el sector público durante los cinco años inmediatamente anteriores y en ella no se podrá permanecer menos de dos años continuados.

En todo caso, si el personal funcionario en situación de excedencia voluntaria por interés particular cumpliera la edad de sesenta y cinco años en esta situación, sin haber solicitado el reingreso al servicio activo, le será declarada de oficio su jubilación forzosa.

3.– A efectos del cómputo de los plazos indicados, se asimilarán al servicio efectivo los años de permanencia en las situaciones de servicios especiales, expectativa de destino, excedencia por cuidado de familiares y excedencia forzosa.

4.– Además de lo previsto en el artículo 5.4 no podrá concederse la excedencia voluntaria por interés particular cuando el personal funcionario esté sometido a expediente disciplinario o pendiente del cumplimiento de sanción.

*Articulo 7.–* Excedencia voluntaria por prestar servicios en el sector público.

1.– Se concederá la excedencia voluntaria por encontrarse en servicio activo como personal funcionario en otro cuerpo o escala o como personal laboral de cualquier Administración Pública, salvo que hubiese obtenido la oportuna compatibilidad, o pase a prestar servicios en entidades del sector público y no le corresponda quedar en otra situación.

A efectos de lo previsto en el párrafo anterior, deben considerarse incluidas en el sector público aquellas sociedades públicas, controladas por la Administraciones públicas por cualquiera de los medios previstos en la legislación mercantil y en la que la que la participación directa o indirecta de las citadas Administraciones públicas sea igual o superior al porcentaje legalmente establecido.

2.– Administrazio edo erakunde publiko berean lan kontratudun gisa edo beste kidego edo eskala bateko funtzionario gisa jarduteko eszedentzia ofizioz emango du administrazioak. Bestelakoetan funtzionarioak berak eskatu beharko du.

3.– Eszedentzia eskatzeko arrazoi izan den zerbitzu-harremana dirauen bitartean, funtzionarioak egoera horretan egon ahal izango dira.

4.– Zerbitzu-harremana amaituta, hogeita hamar eguneko epea izango du interesatuak jarduneko zerbitzura itzultzeko eskaria egiteko.

Eskaria egin ezik, Administrazioak norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jarriko du interesatua ofizioz, eta egoera horretan egon beharko du bi urte segidan, gutxienez, itzultzeko eskaria egiteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jartzeko, interesatuak aurreko bost urteetan arlo publikoan etengabeko benetako zerbitzuak emana izan behar du. Eskakizun hori betetzen ez dutenei Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 37.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

5.– Izaera aldatu, eta arlo publikotik kanpo gelditzen diren erakunde edo entitateetan diharduten funtzionarioak, artikulu honetan arautzen den borondatezko eszedentziari dagokionez, norbere kontuetarako borondatezko eszedentziara igaroko dira, baina ez zaie aplikatuko araudi honetako 6. artikuluaren 2. paragrafoan iraupenari buruz esaten dena.

Aldiz, eszedentziaren iraupena eta jatorrizko lanera itzultzeko prozedura arlo publikoan zerbitzuak emateko eszedentziarako ezarritakoak izango dira.

*8. artikulua.–* Familia bateratzeko eszedentzia.

1.– Senarrak edo emazteak beste herri batean karrerako funtzionario, estatutupeko edo lan-kontratudun gisa lanpostu finkoa lortu badu eta betetzen ari bada, interesatuak eszedentzia mota hau eskatu ahal izango du, baldin eta ezkontideak betetzen duen lanpostua erakunde hauetako batean badago: administrazio publiko, erakunde autonomiadun edo Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaile batean; Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan; konstituzio-organoetan; Eusko Legebiltzarrean; Herri Kontuen Euskal Epaitegian; Lan Harremanetarako Kontseiluan; Ararteko erakundean; Botere Judizialaren organoetan; Europako Batasunean edo nazioarteko erakundeetan.

2.– Interesatuak eskatuta emango da, eta bi urte iraungo du gutxienez eta hamabost gehienez.

3.– Familia bateratzeko borondatezko eszedentziaren gehienezko iraupena agortuta, funtzionarioak jar-

2.– La excedencia se concederá de oficio en el supuesto de pasar a prestar servicios en otro cuerpo o escala o como personal laboral de la misma Administración o Entidad pública; en los demás casos se declarará a instancia del personal funcionario interesado.

3.– El personal funcionario podrá permanecer en esta situación en tanto se mantenga la relación de servicios que dio origen a la misma.

4.– Una vez producido el cese en ella, deberá solicitar el reingreso al servicio activo en el plazo máximo de treinta días.

Quien no lo solicite será declarado, de oficio, en la situación de excedencia voluntaria por interés particular, debiendo permanecer en la misma un mínimo de dos años continuados, contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo establecido para efectuar la solicitud de reingreso.

Para ser declarado en situación de excedencia voluntaria por interés particular deberá haber prestado servicios efectivos en el sector público durante los cinco años inmediatamente anteriores. A quien carezca de dicho requisito se le aplicará lo dispuesto en el artículo 37.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

5.– El personal funcionario, que preste servicios en organismos o entidades que como consecuencia del cambio de su naturaleza queden excluidos de la consideración de sector público, a los efectos de la declaración de la excedencia voluntaria contemplada en este artículo será declarado en situación de excedencia voluntaria por interés particular, sin que le sea aplicable el tiempo de permanencia en la misma que establece el párrafo segundo del artículo 6 de este Reglamento.

El régimen de permanencia y reingreso se regirá por lo dispuesto para la excedencia por prestar servicios en el sector público.

*Artículo 8.–* Excedencia voluntaria por agrupación familiar

1.– Podrá solicitar esta excedencia el personal funcionario cuyo cónyuge resida en otro municipio por haber obtenido y estar desempeñando un puesto de trabajo de carácter definitivo como personal funcionario de carrera, personal estatutario o como laboral en cualquier Administración Pública, Organismo Autónomo o Entidad Gestora de la Seguridad Social, así como en Osakidetza-Servicio vasco de salud, órganos constitucionales, el Parlamento Vasco, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, el Consejo de Relaciones Laborales, el Ararteko, en los órganos del Poder Judicial, en la Unión Europea o en Organizaciones Internacionales.

2.– Se concederá a instancia de parte, con una duración mínima de dos años y máxima de quince.

3.– Concluido el plazo máximo de permanencia en la situación de excedencia voluntaria por agrupación fa-

duneko zerbitzura itzultzeko eskaria egin behar du 30 eguneko epean.

Eskaria egin ezik, Administrazioak norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jarriko du interesatua ofizioz, eta egoera horretan egon beharko du bi urte segidan, gutxienez, itzultzeko eskaria egiteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jartzeko, interesatuak aurreko bost urteetan arlo publikoan etengabeko benetako zerbitzuak emana izan behar du. Eskakizun hori betetzen ez dutenei Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 37.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

IV. KAPITULUA
BORONDATEZKO ESZEDENTZIA PIZGARRIDUNA

*9. artikulua.–* Borondatezko eszedentzia pizgarriduna.

1.– Langileak birkokatzeko prozeduraren lehenengo bi faseetako batean dagoen funtzionarioak borondatezko eszedentzia pizgarriduna har dezake, berak hala eskatuta (fase horiek Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54 bis artikuluan daude zehaztuta).

2.– Halaber pasatu ahal izango dira egoera horretara giza baliabideak arrazionalizatzeko prozesu baten ondorioz destinoaren zain edo nahitaezko eszedentzian daudenak.

*10. artikulua.–* Borondatezko eszedentzia pizgarridunaren ezaugarriak.

1.– Borondatezko eszedentzia pizgarridunaren iraupena bost urtekoa izango da eta, tarte horretan, ezin izango da inolako lanposturik bete arlo publikoan, ez funtzionario, ez lan- edo administrazio-kontratudun gisa.

2.– Epe hori amaituta, itzultzeko eskaria egiten ez badu, funtzionarioa norbere kontuetarako borondatezko eszedentziara pasatuko da besterik gabe, eta egoera horretan egon beharko du bi urte segidan, gutxienez, epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jartzeko, interesatuak aurreko bost urteetan arlo publikoan etengabeko benetako zerbitzuak emana izan behar du. Eskakizun hori betetzen ez dutenei Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 37.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

3.– Borondatezko eszedentzia pizgarridunean dagoenak zenbateko hau jasoko du: azkeneko lanpostuan hil batean jasotzen zituen aldiroko ordainsariak benetako zerbitzuan jardundako urte oso bakoitzeko. Hala ere,

miliar, el personal funcionario deberá solicitar el reingreso al servicio activo en el plazo máximo de 30 días.

Quien no lo solicite será declarado, de oficio, en la situación de excedencia voluntaria por interés particular, debiendo permanecer en la misma un mínimo de dos años continuados, contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo establecido para efectuar la solicitud de reingreso.

Para ser declarado en situación de excedencia voluntaria por interés particular deberá haber prestado servicios efectivos en el sector público durante los cinco años inmediatamente anteriores. A quien carezca de dicho requisito se le aplicará lo dispuesto en el artículo 37.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

CAPÍTULO IV
EXCEDENCIA VOLUNTARIA INCENTIVADA

*Artículo 9.–* Excedencia voluntaria incentivada

1.– El personal funcionario afectado por un proceso de reasignación de efectivos que se encuentre en alguna de las dos primeras fases a que hace referencia el artículo 54 bis de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, podrá ser declarado, a su solicitud, en situación de excedencia voluntaria incentivada.

2.– Igualmente, quien se encuentre en las situaciones de expectativa de destino o de excedencia forzosa como consecuencia de la aplicación de programas de racionalización de recursos humanos tendrá derecho a pasar, a su solicitud, a dicha situación.

*Artículo 10.–* Características de la excedencia voluntaria incentivada

1.– La excedencia voluntaria incentivada tendrá una duración de cinco años e impedirá desempeñar puestos de trabajo en el sector público bajo ningún tipo de relación funcionarial o contractual sea ésta de naturaleza laboral o administrativa.

2.– Concluido el plazo señalado, si no se solicita el reingreso, se pasará automáticamente a la situación de excedencia voluntaria por interés particular, debiendo permanecer en la misma un mínimo de dos años continuados, contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo.

Para ser declarado en situación de excedencia voluntaria por interés particular se deberá haber prestado servicios efectivos en el sector público durante los cinco años inmediatamente anteriores. A quien carezca de dicho requisito se le aplicará lo dispuesto en el artículo 37.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

3.– Quien pase a la situación de excedencia voluntaria incentivada tendrá derecho a una mensualidad de las retribuciones de carácter periódico, excluidas las pagas extraordinarias y el complemento de productividad,

gehienezko muga hamabi hileko ordainsaria izango da. Aldiroko ordainsari horien artean ez dira sartuko, ez aparteko ordainsariak, ez ekoizgarritasun-osagarria.

Kontuak egiteko, lanpostuak behin betiko hornitzeko sistemen bitartez lortutako lanpostuak joko dira azkenekotzat. Azkeneko lanpostuan behin-behineko atxikipenean eta ordainsarietako bermerik gabe egon direnei, finkatuta duten graduari dagozkion ordainsariak emango zaizkie.

4.– Eszedentzia mota honetan daudenei ez zaie lanpostua gordeko eta egoera horretan emandako denbora ez zaie kontuan hartuko administrazio-karrerarako, hirurtekoetarako eta eskubide pasiboetarako.

V. KAPITULUA
SEME-ALABAK ZAINTZEKO ESZEDENTZIA

*11. artikulua.–* Seme-alabak zaintzeko eszedentzia.

1.– Funtzionarioek hiru urteko eszedentzia har dezakete, gehienez, seme edo alaba bakoitza zaintzeko, hala haurra beraiena bada, nola adoptatua bada. Hiru urteko epea haurra jaiotzen denetik hasiko da kontatzen, edo epailearen edo Administrazioaren ebazpena ematen denetik.

2.– Eszedentzia bakarra har daiteke haur bakoitzeko. Beste seme edo alaba bat zaintzeko eszedentzia hartzen bada, aurrekoa deuseztatu egingo da.

3.– Eszedentzia hau funtzionario bakoitzaren eskubidea da. Bi funtzionariok haur berbera zaintzeko eszedentzia eskatzen badute, Administrazioak eskubidea biak batera erabiltzeko aukera muga dezake, zerbitzuen funtzionamendua kontuan hartuta eta, betiere, arrazoituta.

4.– Egoera horretan emandako denbora kontuan hartuko da hirurtekoetarako, norberaren gradua finkatzeko eta eskubide pasiboetarako. Halaber, denbora horretan, funtzionarioari gorde egingo zaizkio Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean finkatzen diren horniketa-sistemen bitartez lortutako plaza eta destinoa.

5.– Denbora horretan ezin izango dira ordaindutako jarduerak burutu, salbu eta bat badatoz Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunei buruzko araudian xedatutakoarekin. Edonola ere, jarduera horiek ez dute zaildu edo eragotziko haurrak zaintzea.

6.– Eszedentziaren gehienezko iraupena agortuta, funtzionarioak jarduneko zerbitzura itzultzeko eskaria egin beharko du, 30 eguneko epean.

Eskaria egin ezik, Administrazioak norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jarriko du interesa-

devengadas en el último puesto de trabajo desempeñado, por cada año completo de servicios efectivos y con un máximo de doce mensualidades.

A efectos del devengo referido, se entenderá como último puesto el obtenido mediante los sistemas de provisión definitiva establecidos. En los supuestos de que el último puesto fuera desempeñado en adscripción provisional sin garantía retributiva, se garantizará, en todo caso, el devengo de las retribuciones correspondientes al nivel del grado personal consolidado.

4.– Esta excedencia no dará lugar a la reserva del puesto de trabajo, y el tiempo de permanencia en la misma no se computará a efectos de carrera administrativa, trienios y derechos pasivos.

CAPÍTULO V
EXCEDENCIA POR CUIDADO DE HIJOS/AS

*Artículo 11.–* Excedencia por cuidado de hijos/as

1.– El personal funcionario tendrán derecho a un período de excedencia, no superior a tres años, para atender al cuidado de cada hijo/a, tanto cuando lo sea por naturaleza como por adopción, a contar desde la fecha del nacimiento o, en su caso, desde la resolución judicial o administrativa.

2.– El periodo de excedencia será único por cada sujeto causante. Cuando un nuevo sujeto causante diera origen a una nueva excedencia, el inicio del periodo de la misma pondrá fin al que se viniera disfrutando.

3.– Esta excedencia constituye un derecho individual del personal funcionario. En caso de que dos personas funcionarias generasen el derecho a disfrutarla por el mismo sujeto causante, la Administración podrá limitar su ejercicio simultaneo por razones justificadas relacionadas con el funcionamiento de los servicios.

4.– El período de permanencia en dicha situación será computable a efectos de trienios, consolidación del grado personal y derechos pasivos. Durante este tiempo tendrá derecho a la reserva de la plaza y destino obtenida por los sistemas de provisión previstos en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

5.– El desarrollo de actividades remuneradas durante el tiempo de permanencia en esta situación se sujetará al régimen de incompatibilidades aplicable al personal al servicio de las Administraciones Públicas y no podrá impedir o menoscabar el cuidado de los hijos/as.

6.– Concluido el plazo máximo de permanencia en la misma, el personal funcionario deberá solicitar el reingreso al servicio activo en el plazo máximo de 30 días.

Quien no lo solicite será declarado, de oficio, en la situación de excedencia voluntaria por interés particu-

tua ofizioz, eta egoera horretan egon beharko du bi urte segidan, gutxienez, itzultzeko eskaria egiteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jartzeko, interesatuak aurreko bost urteetan arlo publikoan etengabeko benetako zerbitzuak emana izan behar du. Eskakizun hori betetzen ez dutenei Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 37.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

VI. KAPITULUA
DESTINOAREN ZAIN

*12. artikulua.–* Destinoaren zain.

1.– Langileak birkokatzeko prozesu batek eragindako funtzionarioak, lehenengo bi faseetan lanposturik lortu ez badu, destinoaren zain geldituko da.

2.– Destinoaren zain dauden funtzionarioek hau kobratuko dute: oinarrizko ordainsariak, beren graduari dagokion destino-osagarria eta egoera horretara pasatu zirenean betetzen zuten lanpostuaren berariazko osagarriaren erdia.

3.– Funtzionario horiek derrigortuta daude honako hauek betetzera:

a) Betetzen zuen lanpostuaren antzeko ezaugarriak dituzten lanpostuetan eskaintzen zaizkien destinoak onartzea, betiere, hura zegoen lurralde historiko berberean badaude.

b) Lekualdatze-lehiaketetan, destinoa zuen lurralde historikoan dauden lanpostuetara jotzea, betiere, bere kidego, eskala edo kategoriari egokitzen bazaizkie.

c) Eskaintzen zaizkien gaikuntza-ikastaroetan parte hartzea.

4.– Destinoaren zain dauden funtzionarioen atxikipena Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54 bis artikuluaren arabera egingo da.

5.– Ezin izango da destinoaren zain egon urtebetetik gora. Epe hori amaituta, funtzionarioa nahitaezko eszedentziara pasako da.

6.– Gainerakoetan, egoera honek jarduneko zerbitzuaren balio berbera izango du.

VII. KAPITULUA
ZERBITZU BEREZIAK

*13. artikulua.–* Zerbitzu bereziak

Kasu hauetan, euskal herri administrazioetako funtzionarioak zerbitzu berezietako egoeran jarriko dira:

lar, debiendo permanecer en la misma un mínimo de dos años continuados, contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo establecido para efectuar la solicitud de reingreso.

Para ser declarado en situación de excedencia voluntaria por interés particular deberá haber prestado servicios efectivos en el sector público durante los cinco años inmediatamente anteriores. A quien carezca de dicho requisito se le aplicará lo dispuesto en el artículo 37.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

CAPÍTULO VI
EXPECTATIVA DE DESTINO

*Artículo 12.–* Expectativa de destino

1.– El personal funcionario afectado por un proceso de reasignación de efectivos que no haya obtenido puesto en las dos primeras fases será declarado en la situación de expectativa de destino.

2.– El personal funcionario en expectativa de destino percibirá las retribuciones básicas, el complemento de destino del grado personal que le corresponda y el 50 por 100 del complemento específico del puesto que desempeñaba al pasar a esta situación.

3.– Dicho personal funcionario vendrá obligado a:

a) Aceptar los destinos en puestos de características similares al que desempeñaba que se le ofrezcan en el Territorio Histórico donde estaba destinado.

b) Participar en los concursos para puestos adecuados a su cuerpo, escala o categoría, situados en el Territorio Histórico donde estaba destinado.

c) Participar en los cursos de capacitación a que se le convoque .

4.– La adscripción del personal funcionario en expectativa de destino se efectuará en los términos del artículo 54 bis) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

5.– El período máximo de duración de la situación de expectativa de destino será de un año, transcurrido el cual se pasará a la situación de excedencia forzosa.

6.– A los restantes efectos esta situación se equipara a la de servicio activo.

CAPITULO VII
SERVICIOS ESPECIALES

*Artículo 13.–* Servicios especiales

El personal funcionario de las Administraciones Públicas vascas será declarado en la situación de servicios especiales:

a) Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario egiten direnean.

b) Beren administrazioak baimena ematen dienean sei hilabetetik gorako misioak egiteko nazioarteko erakundeetan, atzerriko gobernu edo erakunde publikoetan edo lankidetza-programa nazional edo nazioartekoetan.

c) Eusko Jaurlaritzako sailburu, Estatuko gobernuko edo foru aldundietako edo beste autonomia erkidegoetako gobernu-organoetako kide edo goi-kargudun izendatzen dituztenean, azkeneko kasuan, postu horiek nahitaez funtzionarioen bitartez bete behar ez direnean.

d) Gorte Nagusiek konstituzio-organoetako edo ganbarek aukeratu beharreko bestelako organoetako partaide izendatzen dituztenean.

e) Europako legebiltzarrak, berak aukeratu beharreko organoetako kide izendatzen dituenean.

f) Gorte Nagusietako diputatu edo senatari edo Europako legebiltzarreko kide egiten direnean.

g) Eusko Legebiltzarreko, lurralde historikoetako batzar nagusietako edo beste autonomia erkidegoetako legebiltzarretako kide egiten direnean, betiere, bateraezintasunetan erori gabe, jarduneko zerbitzuan jarraitzea erabakitzen ez badute.

h) Toki-korporazioetan hautapenezko kargu ordaindu eta dedikazio esklusibokoa betetzen dutenean.

i) Langile ebentualentzat gordetako lanpostuak betetzen dituztenean.

j) Funtzio publikoan jardutearekin bateraezina den kargu politiko baterako izendatzen dituztenean.

k) Soldadutza edo ordezko gizarte-zerbitzua betetzen ari direnean, salbu eta beren ohiko lanarekin bateragarria bada.

l) Konstituzio Auzitegiko, Arartekoaren edo herriaren defentsariaren zerbitzuetara atxikita edo Kontuen Epaitegian destinatuta daudenean, apirilaren 5eko 7/1988 Legearen 93.3 artikuluan ezarrita dagoen bezala.

m) Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide egiten dituztenean.

n) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko organo teknikoetako kide izendatzen dituztenean.

o) Eusko Legebiltzarreko lege baten bitartez zehaztutako gainerako kasuetan.

*14. artikulua.–* Zerbitzu berezietako egoeran jartzeko prozedura.

1.– Zerbitzu berezietako egoerara pasatzea eragin duen gertaera administrazio edo erakunde publiko ber-

a) cuando adquiera la condición de personal funcionario al servicio de organizaciones internacionales o supranacionales,

b) cuando sea autorizado por su Administración para realizar misiones por períodos superiores a seis meses en organismos internacionales, gobiernos o entidades públicas extranjeras, o en programas de cooperación nacionales o internacionales,

c) cuando sea designado miembro del Gobierno Vasco, del Gobierno del Estado o de los órganos de gobierno de otras Comunidades Autónomas o de las Diputaciones Forales, o alto cargo de los mismos que no deba ser provistos necesariamente por personal funcionario,

d) cuando sea elegido por las Cortes Generales para formar parte de los órganos constitucionales u otros cuya elección corresponda a las Cámaras,

e) cuando sea elegido por el Parlamento Europeo para formar parte de órganos cuya elección corresponda al mismo,

f) cuando acceda a la condición de diputado o senador de las Cortes Generales, o a la de diputado del Parlamento Europeo,

g) cuando acceda a la condición de miembro del Parlamento Vasco, de las Juntas Generales de los Territorios Históricos o de las Asambleas Legislativas de otras Comunidades Autónomas salvo en aquellos casos en que, no incurriendo en incompatibilidad, opte por permanecer en situación de servicio activo,

h) cuando desempeñe cargo electivo retribuido y de dedicación exclusiva en las Corporaciones Locales,

i) cuando desempeñe puestos reservados a personal eventual,

j) cuando sea nombrado para cualquier cargo de carácter político que sea incompatible con el ejercicio de la función pública,

k) cuando cumpla el servicio militar o prestación sustitutoria, salvo que fueren compatibles con el normal desempeño de sus funciones,

l) cuando esté adscritos a los servicios del Tribunal Constitucional, del Ararteko o del Defensor del Pueblo, o destinado al Tribunal de Cuentas en los términos previstos en el artículo 93.3 de la Ley 7/1988, de 5 de abril,

m) cuando adquiera la condición de miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas,

n) cuando sea nombrado miembro de los órganos técnicos del Consejo General del Poder Judicial, y

o) en cualesquiera otros supuestos en que así se determine mediante ley del Parlamento Vasco.

*Articulo 14.–* Declaración de la situación de servicios especiales

1.– La situación de servicios especiales será declarada de oficio cuando el supuesto que origine el pase a la

beraren barruan jazo bada, egoera-aldaketa ofizioz egingo da. Bestelakoetan, funtzionario interesatuak eskatu behar du, egiaztagiriak aurkeztuta.

2.– Zerbitzu berezietara pasatzeko deklarazioa eraginkorra izango da horren eragile izan den gertaera jazo denetik.

*15. artikulua.–* Zerbitzu berezietara igarotzearen ondorioak.

1.– Funtzionarioak zerbitzu berezietan ematen duen denbora kontuan hartuko da administrazio-karrerarako, hirurtekoetarako eta eskubide pasiboetarako.

2.– Funtzionarioak benetan betetzen duen lanpostu edo karguari dagozkion ordainsariak jasoko ditu eta, gainera, funtzionario gisa onartuta dituen hirurtekoei dagozkienak. Legezko arrazoiren bat dela-eta funtzionario gisa onartuta dituen hirurtekoak aurrekontuen pentzutan kobratu ezin baditu, zerbitzu berezietara igarotzeko deklarazioa egin zuen administrazioak edo erakunde publikoak ordainduko ditu, salbuespen gisa.

3.– Zerbitzu berezietan dagoenari gorde egingo zaizkio egoera horretara igaro zenean edo egoera horretan egon den bitartean lortu duen plaza eta destinoa.

*16. artikulua.–* Itzultzeko eskaria.

1.– Betetzen duen kargua edo dena delakoa, zerbitzu berezietara igarotzeko arrazoi izan zena, galtzen duen funtzionarioak zerbitzu aktibora itzultzeko eskaria egin behar du hogeita hamar eguneko epean.

Eskaria egin ezik, Administrazioak norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jarriko du interesatua ofizioz, eta egoera horretan egon beharko du bi urte segidan, gutxienez, itzultzeko eskaria egiteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Norbere kontuetarako borondatezko eszedentzian jartzeko, interesatuak aurreko bost urteetan arlo publikoan etengabeko benetako zerbitzuak emana izan behar du. Eskakizun hori betetzen ez dutenei Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 37.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

